



Sua balkoietan

 IRATI MAJUELO ITOIZ

Ez dut flamenko askorik entzun nire bizitzan, ez bada Sevillako plazetara egindako oporraldiren batean, ez bada Errotxapeako etxarte zaharretan, ez bada Alde Zaharreko korro baten ondotik pasatzean. Baina entzun-entzun, hau da, geratu, tarte bat hartu eta entzun, esanen nuke ezetz, ez dudala sekula flamenkorik entzun. Hori dela eta, aurten seigarren aldiz egin den Flamenco On Fire jaialdia kuxkuxeatzeko gogoia sartu zait, izen komertzial bezain kutrea izan arren, izen ona hartu baitu iruindarren artean.

San Ferminen osteko basamortua izan ohi zen lehen abuztua, baina azken urteetan kultur ekimen interesgarriak bete da hiriburuko uda. Hala nola Harresietako Jaialdia, Bestelako Argiak, Auzokale eta aurten lehen aldiz egingo den Nafarroako Nazioarteko Zinema Jaialdia. Horien artean, leku berezia hartu du flamenkoak, abuztuaren amaieran Iruñeko soziologia anitzaren zati handi bat biltzea lortzen bai-

tu, Sabcas maisuaren ohorez nafar lurretako sustrai flamenkoa goraiatu asmoz.

Nire ezjakintasunaz zalantza egiten nuela abiatu nintzen Mañueta kalerantz, Alde Zaharreko kale mitikoan behintzat argazki ederra aterako nuela pentsatuta. Ez nekien, baina, nire ezjakintasuna bikoitza zela, jaialdiko ekimenik jendetsuenak baitira balkoietan egiten direnak. Bete-beterik zegoen Burgoen plazako baranda, beterik kalera jaisten diren eskailerak eta jendez gainezka Mañuetako frontoi parean sortzen den plazatxo. Jendetza horren artean ni, kontrolatzen ez dudana estilo hau zuei nola ekarri pentsatuz.

Eta orduan atera ziren balkoi banatan Tío Selín eta José Jiménez aita-semeak. Aita ahotsa urratzeko prest eta semea gitarra eskuan. Kantaore beteranoa da Selín, esperientzia urteak pilatu eta Nafarroako kantea bere oinordekoei transmititzen jakin du. José ere ez zaio atzean geratzen, ikustekoa da gitarra nolako pa-

FLAMENCO ON FIRE JAIALDIA

NOIZ: abuztuaren 21ean.

NON: Iruñeko Mañueta kaleko balkoian.

sio eta fintasunez jotzen duen. Aurten Flamenco On Firek 'Belaunaldiak, mitoak eta gazteak' izan ditu ardatz, eta argi dago familia honek baduela zeresanik alor horretan. Tuteran errotoak eta ijito sustrai sakonekoak, flamenkoaren ordezkari garrantzitsuenetakoak dira Nafarroan.

Esku-zarta suabeekin hasi eta ahotsa grinaz urratu arte, indar handiko kantaria da Selín, bere adina gora-behera. Txinparta txikiak abestuko balitu bezala, gutxinaka garrak pizten hasi eta pasiozko sute bat sortzeraino. Harrituta geratu nintzen balkoitik abesteak publikoarengan zuen eraginarekin. Betidanik kalekoa izan den artea kalera ateratzeko bide zuzena da, ibiltarien begirada harrrapatu eta bertan mugitu gabe gertatzen bultzatzen zaituena, esker-txaloak noiz jo zain. Eta, azkenerako ohartu, ez nahiko nukeen bezainbeste, baina ezjakintasunean ere kantea gozatzea posible dela, azken finean, sua beti baita su. ●